

## AHOZKOTASUNAREN MAPA ZABALDUZ

AMPLIANDO EL MAPA DE LA ORALIDAD  
EXTENDING THE MAP OF ORALITY  
EXTENDONS LA CARTE DE L'ORALITÉ

**JOXERRA GARZIA**  
Euskal Herriko Unibertsitatean Doktoratua  
Idazlea eta bertsolaritzaren ikertzailea  
Komunikazio zientzien Irakaslea  
**EUSKAL HERRIA**

---

*Gaur egun abozkotasuna sailkatzeko kategoriak desegokiak dira. Bi aspektu lantzen dira batez ere; abozkotasunaren dinamika eta dibertsitatea. Abozkotasunaren dinamika ez da eztabaidagai kasu honetan, nabiz eta argi utzi ez dagoela etenik idatzizko eta abozkoaren artean. John Foley ikerlari estatubatuarrek abozkotasunaren dibertsitatea sailkatzeko proposatutako sistemak badu zenbait ñabarduraren beharra, Garziaren ustez. Hiru hauek eranstean dizkio amerikarraren sailkapenari: diskurtoaren moldeak, bere bat-batekotasun maila, eta aldi-aldeen partekatzea. Era berean, abozkotasunaren inguruko beste jakintza alorretako ekarpeni adi egon behar genukeela uste du.*

*Las categorías existentes hoy día para clasificar la oralidad no son adecuadas. Se fundamentan sobre dos aspectos: su dinámica y su diversidad. El primero no es el tema que nos concierne concretamente, si bien es cierto que no existe pausa alguna entre lo escrito y lo oral. Por otro lado, el investigador estadounidense John Foley planteó un sistema para clasificar la diversidad, sistema falto de ciertos matices, tres en concreto: el molde del discurso, su nivel de repentinización, y la relación espacio-tiempo. Asimismo, deberíamos prestar más atención a las contribuciones que realizan otras disciplinas.*

*The existing categories to classify orality are not updated. They are based on two aspects: dynamics and diversity. The first is not the subject that concerns to us concretely. On the other hand, the American investigator John Foley raised a system to classify diversity, a system wich doesn't take into account three special matters: the mold of the speech, its level of improvisation, and sharing time-and-place. Moreover, we should pay more attention to the contributions that make other disciplines.*

*Les catégories existantes de nos jours pour classer l'oralité ne sont pas adéquates. Ils sont fondés sur deux aspects : sa dynamique et sa diversité. Ce n'est pas d'abord le sujet qui nous concerne concrètement, bien qu'il soit certain qu'il n'existe aucune pause entre ce qui est écrit et ce qui est oral. D'autre part, le professeur américain John Foley a proposé un système pour classer la diversité, système dépourvu de certaines points, trois concrètement : le moule du discours, son niveau de repentinisation, et la relation espace-temps. De même, nous devrions prêter plus attention aux contributions qui effectuent les autres disciplines.*

## AHOZKOTASUNAREN MAPA ZABALDUZ

“Begi bistakoa da ahozko tradizioen dinamikak eta dibertsitatea ulertzeko erabili ohi ditugun kategoriak desegokiak direla”.

Foley irakasleak bere txostenean egindako baieztapena da hori, eta guztiz bat nator diagnostikoarekin. Darabiltzagun kategoriak aldatu egin behar ditugu, beraz, ahozkotatua tajuz ulertuko badugu. Eta, ulertzen hasita, Foley irakasleak aipatzen dituen bi alderdi horiek ulertzen saiatu behar genuke aurren-aurrena:

- Ahozkotatunaren dinamika
- Ahozkotatunaren dibertsitatea

Ahozkotatunaren dinamikari dagokionez, iradokizun dezente egin dizkigu Foleyk, eta uste dut aski argi geratu dela zenbateraino ez-gauza garen kultura idatziarekiko geure menpekotasunaz askatzeko. Badugu hor zer aztertua franko, baina, denetarako astirik ez dudanez, ez naiz hemen alderdi hori sakontzen hasiko. Esan dezadan, bakar-bakarrik, ados nagoela ahozkotatua eta idatzizkotatunaren artean Erabateko Etenik egitearen kontra Foely irakasleak esan dituenekin. Ahozkotatunak eta idatzizkotatunak kontinuum halako bat osatzen dute, eta asko eta askotarikoak dira beren arteko interferentziak.

Baina, esan bezala, dudan denbora apurra kontuan hartuta, nahiago izan dut ahozkotatunaren dinamikarena beste baterako utzi eta Foleyk aipatzen duen bigarren alderdiari heltzea: ahozkotatunaren dibertsitateaz jardungo dut, beraz, nagusiki. Ondotxo dakit, ordea, bata ulertzeko ezinbestekoa dela bestea ulertzea, eta alderantziz. Kasu honetan, nekez argitu eta sailkatu ahal izango dugu ahozkotatunaren barneko barietatea aurrez ez badugu ahozkotatunaren barne-dinamika tajuz ulertu.

Bi maila edo urratsetan planteatu nahi nuke eztabaida (hori bideratzea beste helbururik ez baitu, izan ere, txostentxo honek). Foley irakasleak berak planteatzen duen maila kontsideratuko dut aurrena; eta hurrena, berriz, ahozkotatunaren dibertsitatea maila zabalago batean kontsideratzeko proposamena egiten ahaleginduko naiz.

1)Ahozkotatun esparru mugatua. ”Verbal art”, “ahozko tradizioak” eta “oral poetry” bezalako kontzeptuak darabiltza Foleyk kontsideratzen ari den objektuaren osotasuna izendatzeko. Bere konplexutasun bariatuan ulertu beharreko objektua hori baino ez balitz ere, arrazoi du Foleyk: sarritan uste (nahi izaten) dugun baino zabalago, konplexuago eta heterogeneoagoa da delako “verbal art” horren corpusa.

Corpus zabal, konplexu eta heterogeneo horren barruko generoak sailkatzeko proposamena ere egiten digu Foleyk. Hiru irizpide erabiltzen ditu horretarako: sortzeko modua (composition), jendetaratzeko modua (performance), eta jasotzeko modua (reception), hirurotako bakoitzaren ahozkotasanari edo idatzizkotasanari erreparaturik. Horren ondorioz, lau kategorია zabal proposatzen ditu: ahozko performancea, ahoztun testuak, iraganeko testuak eta ahozko poema idatziak.

Sailkabide hau, bistan denez, aurrerapausu handia da orain artekoen aldean. Hala eta guztiz ere, ez dakit ateratzen diren lau kategoría ez ote diren oraindik ere zabalegi, eta nik, atrebentzia handiz, beste bi irizpide ere proposatuko nituzke, sailkapena osatze aldera:

- Bat-batekotasuna. Hobekien ezagutzen dudanari helduz, har dezagun, esaterako, bat-bateko bertsoak eta bertso jarriak. Foleyk “oral performance”etan sailkatzen du bertsolaritza, baina ez dakit bertsopaperak ere hor sartzeko diren. Ahoz sortua, ahoz emana eta belarriz jasoa izatea beste baldintzarik ez zaio ezartzen genero bati lehen kategoría horretan sailkatua izateko. Bat-batekotasuna ez da irizpide, eta, hortaz, etxean pentsatu eta plazan kantatutako bertsoa, idatzi ez bada, kategoría horretan sartzen da, bat-bateko petoarekin batera. Bestalde, Imanol Lazkanok bat-bateko bertsoak bezala sortzen ditu bertsopaperetako bertsoak, buruan eta buruz. Saila amaitu eta gero jartzen du paperean. Demagun gero afaloste batean kantatzen dituela horrela jarritako bertso horiek. Non sailkatu behar dira Lazkao Txikik “lo egondako bertsoak” deitzen zituen bertso horiek?
- Sortutako pieza edo diskurtsoaren beraren molde. Ikuspegi honetatik, aski osagarriak iruditzen zaizkit Foleyren sailkapena eta Wolfgang Raible-rena (ikus bibliografian). Raiblek bi maila bereizten ditu diskurtsoen ahozkotasanean: emateko moduarena (modal) eta moldearena (conceptual). Ikusiko dugun bezala, bereizkuntza hori garrantzi handikoa izan daiteke ahozkotasanaren esparrua zabalduz gero. Eta hori da, hain zuzen ere, berehala egingo duguna.

2)Ahozkotasan esparru zabala. Tradizio, arte edo poetika izaerako jeneroetara mugatu dugu orain arte eztabaida. Nire ustez, ordea, hobe genuke ahozkotasan zabalago kontsideratzea. Izan ere, eta Foleyk berak ondo dioenez, komunikazioaren teknologia berriek (sakeleko telefonia, Internet, eta abarrek) gizarte prozesuen erdigunean jarri dute ahozkotasan, eta teknologia berriok baliatzen dituzten hedabideetan dabilta gaur egungo gizartean esanguratsuen diren mezuak. Informazioaren Gizartea deitzen duten hori aztertu duten guztiek diote hori horrela dela (ikus, esaterako, Castells 1998). Autore batzuek, berriz, areago ere badiote: giza ezagutzaren eta komunikazioaren aro berri bat sortu dela XX. mende amaieran (ikus horretaz Simone, 2001).

Tradizio, arte edo poetika izaera ez dio noski testuak ematen diskurtso bati, performanceak berak baizik. Bego. Baina bertsolari batena performancea bada, ez da gutxiago performancea irratiz zutabetxo bat irakurtzen-edo duen esatariarena, edota futbol partida bat irratiz zein telebistaz erretransmititzen duenarena. Ohiko performancean alde eta aldi berak partekatzen dituzte igorleak eta hartzaileak. Irratian, berriz, aldia bakarrik, baina bada zerbait, eta performance modu

hori ere sartu behar genukeela uste dut nik ahozkotasanaren mapa horretan. Beste adibide bat gehiago baino ez jartzearen: zergatik hartzen ditugu aztergaitzat esaera zaharrak, eta ez, esaterako, publizitate esloganak (irradi-telebistakoak behintzat)? Esaerak tradiziozkoak dira eta esloganak ez, baina genero bera dela esango nuke nik: gurean behintzat, ahozkotasan adituak (bertsolariak eta) dira eslogan eraginkorrak sortzen trebeen. Arte edo poetika mailari dagokionez, Foleyk egiten duen galdera bera egingo nuke nik: noizkoa ote da literatura? Ofizialki esan ohi dena baino aspaldikoagoa dela dio Foleyk, eta nik ere hala uste dut. Baliabide poetiko-erretorikoak baldin badira diskurtso bat poetikoa den edo ez erabakitzeke irizpidea, DuMarsais-en harako hura gogora ekarri baizik ez dago: “Baliabide poetiko-erretoriko gehiago erabiltzen dira azoka egun batean baserritarren artean akademikoen hamaika bileratan baino”. Literatura al da bat-bateko bertsolaritza, ala kazetaritza generoa?

Bestalde, hedabide berriek are lausoago egin dituzte lehendik aski lausoa zen ahozkoatsunaren eta idatzizkotasanaren arteko mugak (ikus Morris, 2000). E-maila, adibidez, idatzi egiten da (oraingoz behintzat), baina ahozko moldeak behar du eraginkor izango bada. Crystalek (2001), honako pasarte hau dakar, The Simpson marrazki bizidunetatik hartua:

- Homer: What’s an e-mail?
- Lenny: It’s a computer thing, like, er, an electric letter.
- Carl: Or a quiet phone call.

Itxura guztien arabera, ahozkoaren eta idatziaren nahaste prozesua areagotu baino ez da egingo aurrerantzean. Aurki hasiko gara —batzuk hasita daude— ahoz idazten ere, ahotsa ezagutzeko programa gero eta azkarragoi esker. Nire ustez, ahozkotasanaren alor akademikoan dihardugunok geure egin behar genuke ahozkotasanaren modu eta formato berrioi buruzko hausnarketa. Horrek, nire ustez, bi onura ekarriko ditu. Batetik, usadiozko generoak hobeto ulertzen lagunduko digu. Bestetik, berriz, genero berrietan hizkera egokia zein den zehazteko lana ez da formato kontu hutsetan geratuko.

Orain arte esandakoak gogoan, honako sailkapen behin-behineko hau proposatuko nuke nik ahozko diskurtsoei dagokienez:

- Moldez idatziak, idatziz emanak
- Moldez idatziak, ahoz emanak
- Moldez ahozkoak, ahots hutsez ematekoak
- Moldez ahozkoak, gorputz eta ahotsez ematekoak
- Moldez ahozkoak, inprobisatuak
- Moldez ahozkoak, idatziz emanak
- Molde nahasikoak

Labur eta zehatz

Ahozkotasanaren esparrua horrela zabaltzea proposatzen da txosten horretan, eta horrek, bistan denez, erraztu barik konplexuagotu egingo digu azterketa, bi aldetatik gutxienez:

1) Aldez edo moldez ahozko diren diskurtso guztiak hartu behar genituzke aztergai, eta ez bakarrik nola edo hala tradiziozko, artistiko edo poetiko direnak. Diskurtsook sailkatzeko garaian, John Foleyk proposatzen dituen irizpideei beste hiru hauek erantsi beharko litzaizkieke, gutxienez:

- Sortzen den diskurtsoaren beraren moldea: ahozkoa den edo idatzizkoa
- Sortze prozesuaren bat-batekotasun maila, eta
- Performancean aldi-aldeak partekatzen diren edo bietarik bat bakarra.

2) Zuzen zein zeharka ahozkotasanaz arduratzen diren beste jakintza alorretako ekarpenei adi egon behar genuke, ekarpenok geurera ekarri eta geureak besterenganatzeko bidea eginez.

Aztergaia zabaldu eta azterbideak zailago egiteko proposamena da, beraz, nere hau. Nekeak neke, merezi duelakoan nago, eta pozik nengoke baldin eta topaketotan bide horretan urratsen bat egingo bagenu, baita urrats hori litekeenik txikiena balitz ere.

## Bibliografia

**ALCOBA, Santiago** (coord.), 1999, *La oralización*, Barcelona, Ariel.

**BAREA, Pedro**, (2000), *Teatro de los sonidos, sonidos del teatro. Teatro-radio-teatro, ida y retorno*. Bilbo, EHU.

**BRUFORD, Alan & TODD, Natalya**, “The Eye Behind the Mouth: The Contribution of Visual Memory to Oral Story telling”, in SCHEUNEMANN, Dietrich (ed.) (1996), 7-13 orr.

**CASTELLS, Manuel** (1998), *La era de la información. Economía Sociedad y Cultura*, (bi liburuki), Madrid, Alianza Editorial.

**CEBRIAN HERREROS, Mariano**, “Dimensión audiovisual del idioma”, in GARRIDO MEDINA, Joaquín (1999), II. liburukia, 545-558 orr.

**CRUZ PIÑOL, Mar**, “Un nuevo medio de comunicación: la Internet. Su utilidad en el mundo de las lenguas”, in

**GARRIDO MEDINA, Joaquín** (1999), II. liburukia, 558-565 orr.

**CRYSTAL, David**, 2001, *Language and the Internet*, Cambridge, University Press.

**DUMARSAIS** (1977 [1730]), «Traité des Tropes.(Suivi de PAULHAN, Jean, Traité des Figures)», *Le Nouveau Commerce* 38. alca (gehigarria), Paris.

**FOLEY, J.M.** (2003), “Comparative Oral Traditions”, Kultur Arteko Topaketa hauetarako txostena.

**FRIEDRICH, Rainer**, “The problem of an Oral Poetics”, in XXX, *Oralité et littérature/Orality and Literature*, Actes du XIème Congrès de l’Association Internationale de Littérature Comparée (Paris, août 1985), Paris, Peter Lang, 19-28. orr.

- GARATE, Gotzon** (1998), «Hitzaurrea», in GARATE, Gotzon (1998), *Atsotitzak. Refranes. Proverbes*. Proverbia, Bilbo, BBK. CDrom eta guztiko argitalpena, 14-80 orr. Hitzaurre hori, lehenago ere liburu moduan argitaratu: **GARATE, Gotzon** (1985), *Euskal Atsotitzak / Basque Proverbs*, Bilbo, Gero-Mensajero.
- GARRIDO MEDINA, Joaquín** (1999), *La lengua y los medios de comunicación*, Madrid, U. Complutense, (1996ko Biltzarraren Aktak) (bi liburuki). Autorearena berarena, ikus obra honetan bertan “Oralidad, escritura, imagen: discurso y texto”, I. liburukia, 65-74 orr.
- GARZIA, Joxerra** (2000), “Dena da Literatura”, capítulo in VVAA, *Lur Entziklopedia Tematikoa*, “Literatura”, Donostia, Lur, 24-26, y “Baliabide literarioak”, ibidem, 48-62.  
——— (2000), “El bertsolarismo, del siglo XIX al XXI”, in URKIZU, Patri (director), *Historia de la literatura vasca*, Madrid, UNED, pp. 402-480.  
——— (2000), *Gaur egungo bertsolarien baliabide poetiko-erretorikoak. Marko teorikoa eta aplikazio didaktikoa*. Bilbao, UPV/EHU, Tesis Doctorales.
- GARZIA, Joxerra** (ed.), SARASUA, Jon y EGAÑA, Andoni (2001), *El arte del bertsolarismo. Realidad y claves de la improvisación oral vasca*, Donostia, Bertsozale Elkarte.
- MacARTHUR, Brian** (ed.) (1999), *The Penguin Book of Twentieth-Century Speeches*, London, Penguin.
- MONDELO GZALEZ, Elisa, eta RODRIGUEZ GARCÍA, Teresa**, “Internet: de la oralidad telemática al hipertexto audiovisual”, in GARRIDO MEDINA, Joaquín (1999), ), II. liburukia, 565-575 orr.
- MORRIS, Steve**, 2000, *Perfect E-mail*, London, Random Hous Business Books.
- OLSON, David R.**, eta **TORRANCE, Nancy** (biltz.)1998/91, *Cultura escrita y oralidad*, Barcelona, Gedisa.
- RAIBLE, Wolfgang**, (1996), “Orality and Literacy. On their Medial and Conceptual Aspects”, in **SCHEUNEMANN, Dietrich** (ed.) (1996), 17-27 orr.
- SCHEUNEMANN, Dietrich** (ed.) (1996), *Orality, Literacy and Modern Media, USA*, Columbia, Camdem House INC. Autore honena, ikus bereziki “Collecting Shells in the Age of Technological Reproduction: On Storytelling, Writing and the Film”, 79-95 orr.
- SIMONE, Raffaele**, 2001, *La tercera fase. Formas de saber que estamos perdiendo*. Madrid, Taurus.
- TUBAU, Iván** (1993), *Periodismo oral. Hablar y escribir para radio y televisión*. Barcelona, Paidós.